



## BERRIA

► Aranguren Ibarreko Udaleko OGZaren Informazio Buletina **posta elektronikoz** jaso nahi baduzu, [msanpedro@aranguren.es](mailto:msanpedro@aranguren.es) helbidera mezu bat idatziz eskatu dezakezu. Adierazi itzazu izena, abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa, non Buletina jaso nahi duzun.

Era horretan, Buletina garaiz jasoko duzu e-postaz eta Gizarte Zerbitzuetako Alorrari dagokion guztiari buruzko informazioa jasoko duzu.

## Lan-aurreko Tailerrak

### MENPEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEKO PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA



Profesionaltasun ziurtagiri bat izateak lan merkaturatzeko edo formazio edo lan esperientziaren bidez lortutako lanerako gaitasunak hobetzeko aukerak handitzen ditu. Oraingoan etxe zein institutuetan egiten den pertsonen zaintzari buruzko ziurtagiria da (Zaharren egoitzak eta Zentro Gerontologikoak).

- ARANGUREN IBARREAN ERROLDATURIK DAUDEN PERTSONENTZAT.
- LANGABEZIAN EDO LANEAN.
- DOAKO FORMAZIOA BAINA **EZ** DIRUZ LAGUNDUA.

#### SARTZEKO BALDINTZAK:

- D.B.H.-ko titulua (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)
- Titulua ez izatekotan, gaitasun gakoak izatea.

**Iraupena:** 450 ordu.

2018ko irailetik aurrera.

**Izena emateko epea:** Ekainaren 13tik 15era.

Aurrez aurre oinarrizko gizarte zerbitzuan (Mutiloako Mutiloa plazan z/g) edo **948 151 382** telefonora deituaz.

### HIRIKO ALTZARIEN MANTENIMENDURAKO IKASTAROA

50 ordu teoriko-praktikoak



Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden **18 urtetik gorako pertsonentzat**, Aranguren Ibarreko lan poltsan **altan eta egunean** daudenak. Lehentasuna izango dute

aurreko baldintza horiek bete eta Enplegu Planeko lan-aurreko **tailerretan parte hartu ez duten pertsonak**, baita Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan lehentasunekotzat hartzen direnek ere.

#### DATAK:

**1. Txanda:** uztailaren 23tik abuztuaren 6ra, biak barne.

**2. Txanda:** abuztuaren 7tik abuztuaren 21era, biak barne.

**Ordutegia:** 8:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

**Non emango da:** Ikastaroa Ibaialdeko lokaletan emango da eta Mutiloako eremu ezberdinetan.

**Emalea:** Javier Elurbide.

**Plazak:** Txanda bakoitzak gehienez 8 pertsona izango ditu.

**Izen Ematea:** uztailak 25 eta 26.

**012**ra deituz 8:00etatik 19:00etara.



## Zerbitzu Berria

### ARANGUREN IBARREKO PODOLOGIA ZERBITZUA



Aranguren Ibarreko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik podologia zerbitzu berri bat antolatzen ari da Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 65 urtetik gorako pertsoneri zerbitzua eskaintzeko.

Zerbitzu hau hurrengo egunetan abiatuko da eta San Pedro Erretiratuen Elkarteko lehenengo solairuan horretarako erabiliko den gelan eskainiko da. Etxez etxeko zerbitzua ere eskainiko da, beti ere interesa duen pertsonak mendekotasun gogorra, handia edota podologia zerbitzua dagoen gelara mugitzea eragozten dion ezgaitasuna aitortua badu. Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 65 urtetik gorako pertsonak hurrengo egunetan jasoko dute zerbitzu berri honen funtzio-namenduaz informatuko dituen gutuna.

### 2017-18ko HAPPY SCHOOL EGITASMOAN PARTE HARTU DUTEN IKASLEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA



2017-18 ikasturtean zehar **Happy School** programan parte hartu duten ikasle guztiek Aranguren Ibarreko Udaleko erregistro orokorrean diru-laguntza eskaera aurkeztu ahaliko dute (deialdiko oinarriak udaletxean jaso ditzakezu).

Laguntza hau eskatzen duten ikasleek **Aranguren Ibarrean erroldaturik** egon beharko dute.  
ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAREN BUKAERA: **2018ko ekainaren 8, ostirala, 14:00etan.**

### 2017-2018 IKASTURTEAN ELKARTRUKE PROGRAMA BATEAN EDOTA HIZKUNTZEKIN LOTURIKO ESKOLA ESPERIENTZIETAN PARTE HARTU DUTEN ARANGUREN IBARREKO IKASLEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA



Nafarroako ikastetxeetan DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasketak egiten ari diren ikasleentzat. Deialdi honen helburua ikasle horiei 2017-2018 ikasturtean elkartrukeak egin badituzte, garraio eta jarduera laguntzak ematea da.

Deialdiaren oinarriak Aranguren Ibarreko Udaletxean eskuragarri egon dira.  
ESKAERAK AURKEZTEKO EPE-MUGA: **2018ko irailaren 7an, ostiralean, 14:00etan.**

## 2018ko "JOAN TA ETORRI" PROGRAMA

► TRAFIKO ISTRIPIEN ETA ALKOHOL ETA DROGEN KONTSUMOAREN ARTEAN DAGOEN HARREMANARI BURUZ INFORMATZEKO ETA SENTSIBILIZATZEKO EGITASMOA.  
► HELBURUA TRAFIKO ISTRIPIAK MURRIZTEA ETA FAMILIA ZEIN GAZTEAK ALKOHOLA ETA DROGEN KONTSUMOAREN KONTROLEAN NORBERAK DUEN ERANTZUKIZUNARI BURUZ KONTZIENTZIATZEA DA.

**JARDUERAK:** Autobus zerbitzua egonen da ondorengo herrietako jaietarako: Mutiloa, Gares, Lizarra, Aranguren, Agoitz, Tafalla, Labiano, Taxoare eta Zolina.

HERRIAK	DATA JAIK	JOATEKO ORDUTEGIA	ITZULTZEKO ORDUTEGIA
MUTILOA	Ekainak 23 Larunbata	00:30	07:00
ZOLINA	Uztailak 27 Ostirala	00:30	07:00
GARES	Uztailak 28 Larunbata	23:00	07:00
LIZARRA	Abuztuak 4 Larunbata	23:00	07:00
ARANGUREN	Abuztuak 10 Ostirala Abuztuak 11 Larunbata	00:30	07:00
AGOITZ	Abuztuak 11 Larunbata	23:00	07:00
TAFALLA	Abuztuak 18 Larunbata	23:00	07:00
LABIANO	Abuztuak 25 Larunbata	00:30	07:00
TAXOARE	Irailak 7 Ostirala	00:30	07:00

Geltokiak: Mutiloa (Santxiki / Eroski) (San Pedro I.P). Aranguren, Labiano, Taxoare edo Zolinatik atera nahi izanez gero, jarri harremanetan antolakuntzarekin.

16 eta 30 urte bitarteko gazteentzako..

**OHARRA:**  
Adin txikikoek autobus zerbitzua erabili ahal izateko, beren guraso edo tutoreek Gazte Lekuan, ARANETXEAN, baimena ematea beharrezkoa izango da.  
Familiek informazio gutuna jasoko dute beren etxeetan, baimena ere bertan topatuko dute.



### Eraso sexisten prebentziorako Tailerra gazteentzat: 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzat

Zer egin dezakegu eraso baten lekuko bagara edo jasaten badugu?

Zer egingo zenuke eraso sexisten prebentziorako? Alkoholaren eta drogen kontsumoa al da arazoa?

**Data:** ostirala, ekainak 15 ■ **Ordua:** 18:00.

**Lekua:** Aranetxea ■ **Izen emateak:** Doakoak Aranetxean edo 948 237 558 telefonoaren bidez, ekainaren 9a baino lehen.

► Horrez gain, Aranguren TBan, sare sozialetan eta baita autobusetan ere, Aranguren Ibarreko Udalaren "joan eta etorri 2018" programaren bideoak jarriko dira.

### Interesatzen ahal zaizu

### ARANGUREN IBARREKO JANTOKI OSASUNGARRIA

#### ZER DA?

Jantoki osasungarria zerbitzua Aranguren Ibarreko jubilotekarekin batera adineko pertsoneri arreta integrala eskaini nahi dien beste baliabide bat da. Helburu nagusizat du Aranguren Ibarreko adineko pertsonen modu osasungarri eta orekatuan bazkaltzeko gunea sortzea; baita hori konpainian egiteko gunea sortzea ere.

#### NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Zerbitzua 60 urtetik gorako pertsonentzako irekia dago; beti ere beren buruz baliatzen badira edo neurriko menpekotasuna baldin badute.

**Ordutegia:** asteleheneetik ostiralera, 13:30-15:00.

**Garaia:** urte osoan zehar.

**Parte-hartzaileak:** gehienez 20 pertsonako taldea.

**Non:** Mutiloako Kontsultategi-medikuko beheko aldeko zentroan.

► Informazio gehiagorako: Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Mutiloa plaza z/g. Telefonoa: 948 151 382

## ✓ Interesatzen ahal zaizu

### ■ **Familia ugarietan 2018. urtean sortzen diren entzumen protesietarako, optikako, ortopediako eta ortodontziako gaietarako ohiz kanpoko gastuei aurre egiteko *Nafarroako Gobernuaren laguntzak***

**Aurkezteko epea:** 2018-02-28tik 2018-10-05era.

**Norentzat:** 2018an zehar horrelako gastuei aurre egin behar izan duten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten familia ugariako kideak:

- **Familia ugariako txartela** egunean izatea laguntza eskatzen denean.
- Laguntza jasotzeko beharrezkoak diren familiako kide guztiak Nafarroan erroldaturik egotea eta benetako bizilekua bertan izatea, gutxienez azken bi urteetan.
- Familia ugariaren txartelan agertzen diren kideen bizikidetzaren egiaztatzea.
- Familia unitatearen per capita errenta 13.848,22 euro baino gutxiagokoa izatea. *Familia unitatearen per capita errentatzat hartuko da familia ugariako kide guztien zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga oinarriaren zati orokorraren batura familia ugariako kideen artean zatitzean ateratzen den hori.*

#### INFORMAZIO GEHIAGO

Ondorengo loturan: [http://www.navarra.es/home\\_es/servicios/ficha/7365/Ayudas-a-familias-numerosas-para-gastos-extraordinarios-de-protesis-auditivas-prescripciones-opticas-ortopedia-y-ortodoncia-2018](http://www.navarra.es/home_es/servicios/ficha/7365/Ayudas-a-familias-numerosas-para-gastos-extraordinarios-de-protesis-auditivas-prescripciones-opticas-ortopedia-y-ortodoncia-2018).

#### DOKUMENTUAK AURKEZTEKO:

- Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren Erregistroa. Erletokieta k/, 1 - 31007 Pamplona.
- Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

## ■ GURASOENTZAKO LIBURUEN MAILEGU ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuetatik gurasoei zuen seme-alaben eguneroko heziketan lagundu ahal dizueten liburu batzuen irakurketa aholkatzen dizuegu. Gainera, orain erosi gabe irakurtzeko aukera duzue.

Horretarako, liburuak hiru asteko epean maileguan hartzeko zerbitzua dugu, berritzeko aukerarekin.

Horietakoren bat erreserbatzeko interesa baldin baduzu, ondorengo loturan aurkituko duzun mailegu eskaera betez egin ahalko duzu: <http://www.aranguren.es/prestamo-de-libros-para-padres-y-madres/>

Nahiago baduzu, Gizarte Zerbitzura joan eta bertan utzi dezakezu eskaera hori ere.

### ORAINGOAN, BI LIBURU HAUEK MAILEGUAN UZTEKO AUKERA DUGU:



#### 1 **Recurso para educar en emociones** *J. Amador Delgadorena*

└an honen gaia emozioak dira. Nola sentitzen garen jakiteak nora joan nahi dugun jakiteko laguntzen digu, zer egin nahi dugun. Gure emozioak ezagutzea, ulertzea eta adieraztea norabide egokian eramaten gaituen iparrorratza da. Eta haurrak? Beraientzat oraindik zaila izaten da batzuetan gai hauei erantzutea. Nola laguntzen ahal diegu beren iparrorratza aurkitzen? Liburu honek haur eta nerabeekin harremana duten guztientzako maisu emozionala izan nahiko luke.



#### 2 **Mi pareja NO me escucha** *Remedios Gonzálezena*

└an honetan irakurleari bera protagonista den bidai baterako proposamena egiten zaio. Familia eta lan arrakastarako eta arrakasta sozial eta pertsonalerako gakoak aurkitzeko bidaia. Abentura hau aurrera eramateko bikotearen unibertsoan murgilduko gara; bikote harremanaren gakoak ez baitira, funtsean, lankideekin, lagunekin, edo pertsona batekin lehen aldiz topatzen garenean gure harremana gidatzen duten gakoetatik ezberdinak: ezberdintasun nagusia erabilitako komunikazio mailan datza.